



Hiztegitxoa


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adoretsu ausarta, kementsua	«Galdetu nion, adoretsua eta alaia izan nahi nuen tonu batez.»	94
ahantzura Ahazte	«Konfiantza eta uste txarra. Oroitzapenak eta ahantzura .»	185
aise erraz	« Aise uler nezakeen hori. Baina nekez, ordea, zor hura kitatzeko etengabeko ordainean ibili behar izatea.»	13
akuilatu ziztatu, zirikatu, kitzikatu	«Logikoa zirudien: zure mina erreala ez dela baldin badakizu, ez zaitu akuilatuko .»	100
akuria kuia, probatarako untxia	«— Bai, non dituzue, esate baterako, akuriak ?»	193
alor arhoa, saila, alderdia	«Zientziaren alorrean mugitzen naiz, arrazionaltasun matematikoaren eremuan...»	18
amets-zirimola ametszko zurrumbiloa,	«Figurak, ikonoak, amets-zirimolak . Berriz eta berriz eta berriz.»	184
amildegi labarra, sakonunea	«Eta hari horietako asko amildegirantz doaz.»	11
amildu erori, jausi	«Eta ulertu nahi dut zergatik zauden amiltzeko prest.»	92
antropomorfo gizaki forma duena	«...baina ez jainko antropomorfo eta onbera batengan.»	143
antzu agorra, balio gabea	«Gune zaharren eremu antzuak eta aspergarriak kolorez eta ñabarduraz blaitu zitzaizkidan.»	101
arakatu miatu, ikertu, aztertu	«Hainbeste ideia eta amets jarraitzeko, arakatzeko eta biluzteko.»	17
arakatu analizatu, aztertu	«Antzinako historialarien eta kronisten testuak arakatu genituen.»	64
arian- arian emeki, geldiro	«Baina lehendik ezagunak (edo ustez ezagunak!) nituen arloetan, zirrikitu ezkutuak azaldu zitzaizkidan arian- arian .»	101
arrangura ardura, egonezina	«Pena ematen zidan haren goganbearra eta arrangura ikusteak, baina ez nuen bestelako biderik ikusten.»	108
artega urduri	« Artega nengoen, noski. Zerbait larria gertatzen bazitzaidan ezingo nion inola ere lagundu Iruriri.»	131
ataka estualdia, tentsiozko egoera	« Ataka hartan nenbilela, Richard Feynman fisikariaren liburu bat iritsi zitzaidan eskuetara.»	35
ateologiko erlijioan ez sinestea	«...oreka hura ateologikoa zen, jainkoengandik guztiz at zegoen.»	157
atoan behingoan, berehala	« Atoan itolarriturik, alboko horman jarri zuen eskua, euskarri bila bezala.»	31
auskalo batek daki, jakizu	« Auskalo . Aizu bide batez, aurrekoari loturiko bigarren mesede...»	92
auzia asuntoa, afera, kontua	Gaur egun, interesgarria bai, baina ez da hil edo biziko auzia .»	217
axiomatikoa demostrazioen beharrik ez	«...mekanika kuantiko xelebrea ezkututzen mekanika klasiko axiomatikoaren bihotzean?»	148
aztoratu arduratu, kezkatu, asaldatu	Ez nitek nahi hik aztoratzea orain. Haren azken orduak dituk.»	203
bakan eskasa, apurra	«...poz handiz hartzen genituen halako aukera bakanak .»	19
barreiatu sakabanatu	«...gizakien kopurua izugarri hazi da, galaxia osoan barreiatu ondoren.»	20




barrukarkara barre algara	«...ezin izan nion barrukarkara bati eutsi.»	155
bederen behintzat, behinik behin	Ez kontzienteki, bederen . Ilea laztandu nion, poliki.»	213
behiala antzina	« Behiala , halako dohaina behar zuten hizkuntzak garatu zituzten gizakiek.»	216
besaulki butaka	« Besaulkira hurbildu eta eseri gin nintzen...»	55
bestelako beste era batekoa, desberdina	«Pena ematen zidan haren goganbeharra eta arrangura ikusteak, baina ez nuen bestelako biderik ikusten.»	108
betan bat-batean	«Emakumearen begirada betan samurtu zen.»	195
bortitz indartsua, biolentoa	«Mendiak zurituta ikusi, ekaitz bortitz ...»	> 94
buruhauste arazoa, endredoa	«Nahiko buruhauste izan dut, ez pentsa.»	221
deklamatu errezitatu, interpretatuz bezala	«San joanen ebanjelioaren hasiera deklamatu nion buruz.»	178
ditiat ditut (hika)	«Ezarpn-funtsen fluktuazioak ikertzen ditiat , diru-gordailuak, inbertsioak...»	19
dohain berezko gaitasuna, nolakotasuna	«— Ikerlari ona izango zinateke orduan. Gogoia baita garrantzitsuen. Dohaina baino gehiago.»	196
doia zehatza, justu-justukoa	«Ez zen bereziki doia (ez medikuek gaixoei erabiltzeko adina, esate baterako), baina bai nik behar nuenerako nahikoa.»	121
doitasunez zehaztasunez, justu-justu	«Alegia, ezin dira zehaztu, aldi berean eta nahi besteko doitasunez , zenbait aldagai fisiko.»	205
egokiera abagunea, une egokia	«Zu beharrezko egokieran ezartzeko.»	220
egoskor burugogorra, tematia	«...ezin egoskorragoa izan.»	> 145
egundoko sekulakoa, itzela, itzelezkoa	«Hau egundokoa duk, Bernat. Egundokoa!»	22
eldarnio sukar-ametsa, delirioa	«Orduan eldarnioak dituk, ilusioak.»	179
enkante subasta	«AEBetako inbertsio-banku eskerga batek irabazi zuen enkantea .»	22
eratu sortu, antolatu	«Orain badakit nolako urakan basatia eratu zen hegaldi txiki hartatik.»	12
errai barrenak, tripak	«...erruduntasuna sentitu nuen nire erraiak urratzen.»	142
errieta egin agiraka egin, bronka bota	«Iruriri errieta egiten jarraitzeko gogoia banuen ere, barruko ahotsak oihiu egin zidan.»	27
eskerga neurrigabea, handi-handia	«...nire buru-gaitasun eskerga berria gorabehera.»	148
estutu sakatu	«Horrek estutu egiten zaitu, eta inoiz baino ozpinago (...) gabiltza.»	14
etologo animalien portaera ikertzen du	«Richard Dawkins etologoaren esaldi ospetsu bat parafraseatuz.»	172
etsita amore emanda, desesperatuta	«Ez zen ohikoa harentzat ni etsita ikustea.»	79




faborez arren, otoi, mesedez	«—Bernart, faborez , lasaitu hadi. Etorri, etxera lagunduko diat.»	180
fluktuazio gorabehera, goibehera, aldaketa	«Ezarpn-funtsen fluktuazioak ikertzen ditiat, diru-gordailuak, inbertsioak...»	19
funtsean oinarrian	« Funtsean , ordea, ezgauza sentitzen nintzen.»	29
gailua ordenagailua, makina	Sagu zuri txikiarengana hurbildu eta gailua piztu nuen.»	199
gainazpikatu hankaz gora jarri, irauli	«Txipa aldatu, eta neurtzeko eta pentsatzeko moduak gainazpikatu .»	60
gaitz kaltea, gaixotasuna	«Edozein gaitz sendatzen da, hitz soilaren bitartez.»	66
gogamen bururapena	«Iruriri gogamen perfektua aukeratu behar nion.»	220
goganbehar larrialdia, ezinegona	«Pena ematen zidan haren goganbeharra eta arrangura ikusteak, baina ez nuen bestelako biderik ikusten.»	108
grina pasioa, gogo bizia	«Ardura, grina , jakin-mina, haiexek nituen joera nagusiak.»	27
hamaika asko, ugari, piloa	« Hamaika bide berri. Jakintza arlo guztiak lotzen dituzten hariak.»	180
harilkatu astalkatu, hariak atera	«Begiradak hartu eta nola edo ahala harilkatzen ditu.»	89
harrezkero handik aurrera	«Bulegoko nagusiek mailegu salbatzaile bat egin omen zioten eta harrezkero zorretan sentitu zen haiekin.»	13
harritzar harri handia	«...eta ni airean jaurtitako harritzarra nintzen.»	157
hautespen aukeraketa, selekzioa	«Begiratu hautespen naturalaren bidezko eboluzioaren teoriari.»	84
helezina eskuraezina, harrapa ezina	«Nola esan? Nola deskribatu helezina ?»	101
helmenean eskura, heltzeko moduan	«Lan horretarako, hizlariak, ipuinlariak eta poetak gainditu behar nituen, literaturtasunean ez bazen ere, bai helmenean .»	216
hotsandi burrumba, dunbada ...	«...pertsonaiak hotsandiz eta seriotasunez mintzo ziren oro har.»	76
hotsgabeturiko isildua, soinu gabetua	«Azkenerako, hotsgabeturiko kutxatik kanpo egitera ausartu nintzen.»	186
huskeria txikikeria, zirtzilkeria, garrantzi gut	« Huskeriatan galtzeko denborarik ez neukala gogorarazi nion neure buruari.»	73
huts ezereza	« Hutsari begira zegoen Iruri, geldi eta isil.»	25
ika-mika eztabaida, liskarra	«Zergatik amaitu behar dugu beti horrelako ika-mika tontoak izanez?»	15
irmo tinko, sendo	«...gaineratu nion, samurtasunez, eta hala ere behar bezain irmo —.»	27
itsumustuan ustekabea, espero gabe, ezustean	«Iruri, ordea, serio jarri zen itsumustuan . Akabo.»	94
itsustu itxuratxartu, aldrebestu	«...eta idatzi zuena idatzi zuen, batere edertu edo itsustu gabe...»	66
jaramon egin kasu egin	«Giza-senari egin nion jaramon , eta axolagabearen eginkizuna betetzen ahalegindu nintzen.»	26



jarduna lana	«Nik ordu dezente sartzen ditut lanean, baina nik erabakitako jarduna da.»	14
jaurti indarrarekin bota	«...eta ni airean jaurtitako harriztarra nintzen.»	157
jokamolde jokabidea, portaera	«...errepikatzen diren fenomenoak ezagutzeko: egunak, jokamoldeak .»	89
kabala aberea, azienda	«... kabala argitu moduko bat.»	> 148
kalaka berriketa, hizketaldia	«... kalaka zorrotzean arituko zitzaidala susmatzen bai nuen.»	137
katalizatu aldaketa kimikoa	«...modu jakin batzuetan konbinatu eta gero, katalizaturiko erreakzio baten moduan jokatu zuen.»	167
katigaturik loturik, estekaturik, kateaturik	«...eta egia esango diat katigaturik gabiltzak ikerketarekin.»	21
kirten babalorea, txepela, leloa	« Kirtenak izan ginen, hizkuntzak berak ohartarazten baitzigun!»	219
kliskatu kliska egin, begiak azkar itxi-ireki	«Zenbait segundoz, begiak azkar kliskatzen egon zen, hasperen luze batez amaitu zuen arte.»	110
koldar txepela, beldurtia	«Apur bat koldarragoa . Hitz-multzo eder bat txertatu behar nion jende-kopuru handi samar bati...»	221
lagun hurko norbera ez dena, bestea,	«Hitzen bitartez, zoriontsu egin dezakegu lagun hurkoa , edo etsipenera jaurti.»	104
laidoztatuta txarto tratatu, gutxietsi, iraindu	«Lamarck naturalista, hain laidoztatua izan zena joandako bi mendeetan.»	171
larrutu larrua erauzi, birrindu	«—Jakina. Baina entzun: min gehiago egiten badiok, larrutu egingo haut.»	181
laudorio gorespina	«—Eromenaren laudorioa –hasi zen irakurtzen—.»	209
lausotu lainotu, gandutu, nahastu	«...ordura arte errealitate absolututzat neukana lausotuz ari zen.»	170
lazgarri beldurgarria	«Serio-serio, epaiketa lazgarri hartaz guztiz jabeturik.»	30
lizun obszenoa, sexu jarrera irtena	«...laztan lizunak eta plazerik gozoenak.»	93
mailegu prestamua	«Bulegoko nagusiek mailegu salbatzaile bat egin omen zioten eta harrezkero zorretan sentitu zen haiekin.»	13
mailutzar mailu handia	« Mailutzar batez buruan eman balidate bezala sentitu nintzen.»	94
maiz sarritan, askotan, frankotan	«Lana goizez, arratsaldez eta maiz iluntzez.»	12
makal eskasa, ahula	«Baina hortik monasterio batean sartu nahi zuela erabakitzera ez zegoen tarte makala .»	35
makal indarge, ahul	«Handik, makal eta apurka baino ez genuen egingo aurrera.»	59
masta itsasontzietako haga edo palua	«...nire itsasontziko mastatik ez nuen lurra ikusten.»	156
melatu busti-busti, blaitu	«Ekaitz bortitz baten azpian melatu eta datorren urtearen hasiera zurekin igarotzea.»	94
mendetasun sumisioa, subordinazioa	«Mugimenduari loturik dago eta baita emozio, plazer, motibazio eta mendetasunei ere.»	88



mesfidantza ez fidatzea	«Ahaztu/oroitu, lasaitu/urduritu, gosetu/gosegabetu, konfiantza/ mesfidantza .»	185
mirespen mira, admirazioa	«Marenek halako sumendi-izaera deigarria izateak mirespen adina arazo sortu zidan.»	53
miretsi mirespenez adierazi, txundituta	«— Zoragarria — miretsi nuen nik...»	61
nomada ibiltaria	« Nomadatasun hura gorabehera, ahal genuen bakoitzean saiatzen ginen elkartzen, batere erraza izaten ez zen arren.»	18
ñabardura xehetasuna	«Gune zaharren eremu antzuak eta aspergarriak kolorez eta ñabarduraz blaitu zitzaizkidan.»	101
onbera bihozbera, ona, errukitsua	«...baina ez jaingo antropomorfo eta onbera batengan.»	143
ordainean bueltan, itzultzeko	«...baina, ordainean , nolabaiteko herio-mezua bere barrutik barreiatu, eta zenbait metrotako distantziara zeuden sagu guztietara heltzen zen.»	201
oroitu gogoratu, akorduan eduki	«Saguetariko bat lotan ikusi nuela oroitzen dut.»	184
orojale omniboroa, denerik jaten duena	«...baina nik ezin nuen baztertu nire barruko zientzialari orojalea ...»	23
parafraseatu esanak errepikatu	«Richard Dawkins etologoaren esaldi ospetsu bat parafraseatuz .»	172
petrikilo sendagilea (ez ofiziala),	« Petrikiloak , engainatzaileak, lapurrak.»	84
pragmatismo enpirismoa, praktikotasuna	«...eta orain pragmatismo simple horretan utzi nahi duk?»	144
samina mina, erredura	«... saminak zeharkatzen nau erraien barrenetik buruko azken ile-puntaraino.»	12
samur biguna, murtxikatzeko erraza	«...nire baitan justifikazio samur baten bila ari nintzela...»	25
samurtu bigundu	«— Konfiantza —esan nion. Emakumearen begirada betan samurtu zen.»	195
sareta pertsiana	«Haren betazalak apurka-apurka jaitsiz joan ziren, saretak balira bezala, eta belaunak tolestu egin zitzaizkion.»	208
sega kodaina, belarra ebakitzekoa	« Sega jasoko duena ni izanagatik ere, halabeharrak erabakiko du nori egokitzen zaion metalezko aho zorrotza.»	221
segidan jarraian	«Ehun aldiz errepikatu nuen hura, segidan .»	183
sekulakoa egundokoa, itzela	«Hura guztia sekulakoa zen. Ikaragarria!»	185
sermoi predikua, hitzaldi luzea	«Eskilok sermoia egiten zuen.»	76
sorta multzoa	«— Maren eskuetan zeukan paper sorta berrikusten hasi zen...»	64
soseguan lasaitasunean, bare-bare	«...goizeko eguzkipean egongo banintz bezala, fresko baina hotzik gabe. Soseguan .»	161
sotiltasun sinpletasuna	«... sotiltasuna ez duk hire dohaina.»	144
sumin Amorrua	« Suminaren zuloan erortzeaz nengo, gainera.»	35
tarteka-marteka aldizka, noizean behin	«...baina hor ere, tarteka-marteka , berebiziko garrantzia dauka zori hutsak.»	18



temati egoskor, petral, jasanezin	«...zera baino tematiago .»	138
tematu egoskortu, setatu	«—Eta izango nauzu. Baina bestea ere egin dezaket, Iruri —tematu nintzen—.»	57
tronpatu erratu, gaizki aukeratu	«—Eta tronpatzeko arriskua? Kontuan hartu al duzu?»	90
tupustean ustekabea	«...baina uste dut nire lan-mahaiaren aurrean hartu ninduela loak, tupustean hartu ere.»	167
txit goren oso-oso goi mailakoa	«Kritikari txit gorenen mespretxua ekarri zion.»	76
urkamendia urka, itotzea	«Eta leku hori urkamendia da.»	111
urragarri hunkigarria, zarrastatzen duena	«Zein baino zein urragarriagoa .»	32
xelebre bitxia	«...mekanika kuantiko xelebrea ezkutatzen mekanika klasiko axiomatikoaren bihotzean?»	148
zaletasun afizioa, jaidura	«Eta uste dut esan daitekeela lana obsesio dudala, zaletasun baino gehiago.»	17
zanpa-zanpa etengabe, ekin eta ekin	«Ehunka garrodun olagarroa bihurtu zitzaidan burua, eta garro bakoitzak uholde bat datu bereganatzen zuen zanpa- zanpa .»	103
zartako masailekoa, zartada, kolpea	«Nola erreakzionatzen duzu bat-bateko zartako baten ondoren?»	30
zerraldo hilik bezala	«...lo zerraldo geratu zen Kike.»	177
zilegitasun Legetasun	«...ez zuen batere zerikusirik mezuaren zilegitasun edo zuzentasunarekin.»	173
zimeldu freskura galdu, zimurtu, ihartu	«Iruriren alboan egon, hura zaintzen eta mimatzen, eta ia ziur zimeltzen ikusi...»	35
zimendu egonarria, oinarria	«Aurreko dena ahaztu eta zimenduak aztertu.»	60
zirkinik ez egin mugimendurik ez egin	«Irurik ez zuen zirkinik egin . Entzun ere ez zidan egingo.»	213
zorra kitatu zorra likidatu, kendu	«Aise uler nezakeen hori. Baina nekez, ordea, zor hura kitatzeko etengabeko ordainean ibili behar izatea.»	13
zurrun tente	«...nik zurrun eta bortitz jarraituko nuen haren alboan.»	140